



# Getxo

Ekonomia - Sustapena  
Promoción económica

*bizi ezazu*



## ENPRESEN AHOLKU FOROA

2021eko otsailaren 23a

### GAI-ZERRENDA:

- 1.- Ongietorria, ordezkarien aurkezpena eta bileraren helburua
- 2.- 2021eko Getxo Bonuaren eredua.
- 3.- Tokiko kontsumoari buruzko sentsibilizazio- eta sustapen-kanpaina.
- 4.- Galderak, iradokizunak eta bestelakoak.

PARTE-HARTZAILEAK: (81,8%)

DEITUAK		BERTARATUAK	BERTARATU EZ DIRENAK	
			Justifikatuak	Justifikatu gabeak
Ostatuen ordezkaria	Javier Angulo		X	
Taxien ordezkaria	José Ignacio López (Maiterekin batera)	X		
Kirol aisialdiko ordezkaria	Héctor García	X		
Interpretazio-zentroen, gidien eta bidaia-agentzien ordezkaria	Ainhoa Sarriegi	X		
Merkataritzako ordezkariak				
Getxo Enpresa	Elena Cantera	Ordezkoa ez da bertaratu	X	
Romo Bizirik	Ainhoa Calderón	X		
Algortako Dendak	Amaia Sertutxa	X		
Ostalaritzako ordezkariak				
Bizkaia Ostalaritzako Elkartea	Hector Sanchez	X		
Asohge	Jorge Alonso	X		
Romo Bizirik	Jon Morán			X
Getxo Enpresa	Desiré Yeste, Maria del Fresnoen ordezkaria	X		
Getxoko Udala - Sustapen Ekonomikoaren Atala	Mirene Zabalgogezcoa	X		
	Sonia Urdiain	X		



**Getxo**  
*bizi ezazu*

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

## 1.- Ongietorria, ordezkarien aurkezpena eta bileraren helburua.

Deialdira bertaratu direnei agur egin eta bileraren helburua gogorarazi zaie:

- ✓ 2021eko Getxo Bonuaren ereduaren aurkezpena.
- ✓ Tokiko kontsumoa sentsibilizatzeko eta sustatzeko kanpaina.

## 2.- 2021eko Getxo Bonuaren eredia.

### 2.1- Getxo Bona: Ostalaritza.

Aholku Foroaren aurreko deialdietan jasotako eskaerak gogorarazi zaizkio mahaiari. Eskaera horiek kontuan hartu dira sektorearen beharretara hobekien egokitzen den Getxoko Ostalaritza Bonuaren eredia diseinatzeko. Premisa horiek honako hauek dira:

- Zenbateko txikiagoak, mota guztietako establezimenduei erantzun ahal izateko.
- Erosteke unean establezimendua aukeratu ahal izatea.
- Establezimenduetako bonuen kudeaketan ahalik eta eragin txikiena izatea.
- Ahal bada, hobariaren zatia bakarrik kudea dadila.
- Sistema erraza.
- Adinekoentzako alternatiba ez-digitala.
- Establezimenduak jaulki edota bezeroak eros ditzakeenak.

Gainera, talde teknikoak Hector Sanchezek aurreko kontrasteen mahai politikoan azaldutako bonu ereduak aztertu eta kontuan hartu ditu.

Emaitza gisa, proposatutako eredia aurkeztu da. Eredu horrek ezaugarri hauek izango ditu:

- Bona paperezko formatuan.
- Atxikitako establezimenduei bidezko banaketa egitea.
- Bonuaren bi zenbateko, bata 15ekoa eta bestea 30ekoa, % 50eko hobariarekin.
- Kudeaketa erraza eta denen neurrira egindakoa; ostalariak, nahiago badu, bitarteko elektronikoen bidez justifikatu ahal izango ditu kontsumitutako bonuak, horretarako diseinatutako aplikazio baten bidez; edo, bestela, aurrez aurre justifikatu ahal izango du.
- Erosketa-mugarik gabe; ostalariak bezeroei eskaintzeko erabiltzen duen irizpidearen arabera izango da.



# Getxo

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

*bizi ezazu*

- Funtzionamenduak mekanika honi jarraituko dio:

Erabiltzaileak lokalean bertan eskuratuko du bonua, kupoi gisa, eta, beraz, kontsumizio batean edo batzuetan truka daiteke, saldoa agortu arte; argibide gehiago eskaintzeko, Hector Sanchezek emandako eredu bat erakutsi da. Bestalde, ostalariak, Bonua saldu ondoren, faktura sinplifikatua erantsi behar du, online edo offline aurkeztu, eta hobari hori egun gutxira jasoko du, bonua noiz kontsumitzen den gorabehera.

- Barnean, kudeaketa hori aurreko edizioetan bezala egingo da; elkarre baten bidez, laguntzen deialdiaren bidez, ordainketa-pasabide bat eta web-aplikazioa garatzeko hirugarren eragile gisa.

Gainera, ekintza horietarako aurrekontuan sartutako zenbatekoen berrespena iragartzen da, honako hauek barne:

- ✓ 100.000 € bonua kudeatzeko.
- ✓ 15.000 € publizitaterako.

Lantalde teknikoak jakinarazi duenez, Getxo Merkataritzako Bonua iragartzeko eskuragarri dauden 35.000 euroekin batera, 50.000 euro dira guztira; kopuru hori interesgarriagoa litzateke udal-bonuen kanpaina global baten bidez batera erabiltzea, bi tipologiaren zabalkundea sustatzeko. Hasieran inpaktu handia lortzea izango litzateke asmoa, herritarrei haren funtzionamendua ezagutarazteko, eta gero "tantaka" joatea, kanpaina amaitu arte.

### **2.1.1- Talde-hausnarketak.**

Jorge Alonso ASHOGeko ordezkariak adierazi du kezkatuta dagoela bi bonuak ez direlako bereizten; izan ere, ostalaritzarentzat berrikuntza bat denez, baliteke herritarrek Getxo Bonua ostalaritzaren sektorearekin ez lotzea. Halaber, 50.000 € horietan parte-hartzaileek beren sare sozialetan dirulaguntza gisa inberti dezaketen publizitatea sartzeko aukerari buruz galdetu du. Proposamen hori teknikoki ez da posible.

Bonu-mota bakoitzak bi sektoreri laguntzeko helburua duen arren, bi sektoreei Getxo Bonu deitzea komeni dela azaldu da. Horrek ez du esan nahi bakoitzaren bereizketa egongo ez denik keinu eksklusibo batzuen bidez. Adibidez, izenari dagokionez, "Ostalaritza" aipu bat barne, eta merkataritzarako egokiena zein den zehaztu gabe, parte hartzen duten sektore guztietara egokitu behar da.

Héctor Sánchez Bizkaiko Ostalaritza Elkarteko ordezkariak, bere aldetik, esan du ez dela oro har kontsumoa sustatzeko sistemarik onena; izan ere, ostalari askok estrategikoki eta marketin-irizpideekin erabiltzen jakingo dute, baina beste batzuk ere "sari" gisa soilik banatuko dituzte beren ohiko bezeroen edo lagunaren artean. Horregatik, ezinbestekoa iruditzen zaio behar bezala erabiltzen jakitea. Jorge



# Getxo

Ekonomia - Sustapena  
Promoción económica

Alvarezek ere behin baino gehiagotan aipatzen du behar hori, ostalarien arteko "lehia desleiala" saihesteko, gaizki erabiltzen delako.

Bonua erabiltzeko modurik egokienari erantzuteko, kanpainaren aurretik **azalpen-bideo bat sortzea** proposatzen da, sektoreari dakarkion berritasuna kontuan hartuta, ostalaritza-enpresek ereduaren mekanika eta haren jardunbide egokiak uler ditzaten, haiekin erabilera-estrategia on batean lan egiteko.

Bestalde, beste kezka batzuk sortzen dira ordezkarien artean ereduari dagokionez:

1. Bonu-sistema proposatua:

Jorge Alonsok zalantzan jarri du proposatutako sistemaren helburua kontsumoa merkatzea ote den, sustatu beharrean. Talde teknikoak eta Amaia Sertutxa Algortako Dendak elkarteko ordezkariak, besteak beste, bere esperientziatik hitz egin dute, eta sustatzen duela erantzun dute, baina, lehen aipatu bezala, establezimenduak erabiltzen duen strategiaren araberakoa da nagusiki.

2. Azkenean bonu soberakinik egonez gero, nola jardun:

Ainhoa sarriegi Interpretazio Zentroen, Giden eta Bidaia Agentzien ordezkariak aukera horri buruz egindako galderaren aurrean, udalaren teknikariek, Hector Sanchezek eta zenbait ordezkariak ziurtatzen dute egoera hori ia hutsaren hurrengoa dela, ez bakarrik ostalari bakoitzari egokituko zaion bonu kopuru "eskasagatik", baizik eta edozein erabiltzaileri eta edozein unetan aplikatzeko erraztasunagatik. Gainera, horien kontsumoa oso azkarra izatea kalkulatzen da. Hala ere, halakorik gertatuz gero, gainerako parte-hartzaileen artean jaso eta banatuko dira.

3. Ostalarien arteko banaketa ekitatiboa:

Jorge Alonsok azpimarratu du banaketa hori ez dela guztiz bidezkoa horiek sustatzeko ahalegin handiena egiten duten establezimenduentzat, bonu kopuru finko batek mugatuko baititu, kontsumo handiagorik lortzeko aukerarik gabe.

4. Balizko iruzurrak:

Nahiz eta bertaratutako batzuek horri buruzko ezinegona adierazi, ondorioztatu da beste kanpaina batzuetan iruzurrak oso eragin txikia izan duela beti. Hala ere, bonua ahalik eta berme handienekin diseinatuko da.



# Getxo

Ekonomia - Sustapena  
Promoción económica

*bizi ezazu*

## 2.2- Getxo Bonua: Merkataritza, turismo-entresak, taxiak eta askotariko zerbitzuak.

Era berean, aurreko deialdietan jasotako eskaerak jakinarazten zaizkio Kontsulta Foroari. Eskaera horiek kontuan hartu dira Getxo Bonuaren eredu diseinatzeko (barne hartutako sektore guztietara ondoen egokitzen dena). Premisa horiek honako hauek dira:

- Kanpainaren iraupena: hasten denetik (martxoa izan daitekeela uste da) bonuak amaitu arte.
- Bonuen zenbatekoak: 20 eta 40 euroko bonuak eta egungo hobariak mantentzea.
- Adinekoek erabiltzeko modukoa izatea.
- Establezimenduei egin beharreko ordaintzen kudeaketa azkarra izatea.
- Izapidetzea erraza izatea.
- Ereduak baliozkotzeko eta ordaintzeko barne-kudeaketa ahalik eta txikiena sortzea.
- Kanpainaren irismena: batez ere Bilbo Handian eta Uribe Kostan zabaltzea.
- Getxo Bonua eskuratzea: merkatariek edo azken bezeroak? Agertoki misto baten aldeko apustua egiten da, eta hain digitalak ez diren adineko pertsonen beharrei erantzun nahi zaie.
- Kutxazaina bonua erosteko bitarteko gisa ezabatzea, ilarak, makinaren akatsak, kutxazainetara urrutitik joatea eta abar saihesteko.

Gainera, jakinarazten da sektore berriak sartuko direla Getxoko Bonuaren erabileran, eta jardunaldi baterako deialdia egingo da haren erabilerari eta funtzionamenduari buruzko informazioa emateko.

Zehazki, taxietako ordezkariak jakinarazi zaie iaz Getxo-Taxi Tours zerbitzua zuten taxiak baino ez zutela kanpainara atxikitzeko aukera; aitzitik, 2021era begira, berrikuntza gisa, taxi-gidari guztiek parte hartu ahal izango dute, edozein motatako taxi-zerbitzurako.

Hala, 2021eko Getxo Bonurako proposatutako eredu aurkeztu da. Eredu horrek ezaugarri hauek izango ditu:

- Online formatuko bonua, aurretik erabilitakoak bestelako aplikazio bat sortuz (kudeaketa-arintasun handiagoa emango duena).
- Bonua web bidez baizik ez eskuratzea.
- Bi bonu-zenbateko; bat 20koa eta bestea 40koa, aurreko urtean bezala, eta% 25eko hobaria.
- Trukaketa errazaren kudeaketa, aplikazio arinagoaren bidez.
- Pertsona bakoitzeko erosketa-muga kentzea.



# Getxo

Ekonomia - Sustapena  
Promoción económica

- Establezimendua arduratuko da adinekoei bonua eskuratzen “in situ” laguntzeaz, eta egoera aprobetxatuko du bezeroak fidelizatzeko aukera gisa.
- Laguntza-deialdiaren bidez, ordainketa-pasabide bat eta aplikazio elektronikoa garatzeko hirugarren eragile gisa elkartzea.

## 2.2.1- Talde-hausnarketak.

Arlo teknikotik jakinarazi da toki-administrazioak ez duela baliabiderik Getxo Bonua kudeatzeko aplikazio berria martxan jartzeko, udaberrirako erabilgarri egon dadin. Hori dela eta, jakinarazten da ezohiko laguntza-deialdi bat egingo duela elkarreentzat, haiek kontrata dezaten tresnaren garapena.

Azken produktua Getxoko Udalarena izango da, eta etorkizunean erabiliko da, kontsumoaren bilakaeraren arabera beharrezkoak izan daitezkeen hobekuntzak ezarrita.

Ordezkarri batzuek errezeloz begiratzen diote aplikazio berriari, aurreko aplikazioekin izandako esperientzia motela eta problematikoa izan baita; alderdi horretan aldaketa positiboa ikustea espero dute aplikazio berriarekin.

Ainhoa Calderón, Romo Bizirikoko ordezkariak, bere aldetik, aurreko edizioko arazo berberak ikusten dituela esan du. Alde batetik, adinekoentzako bonuaren erosketa ez da aldatu, eta haiek orain arte ere laguntzen zieten establezimenduan, eta hori laneko denbora da. Erantzun zaio ez dagoela askoz aukera gehiago; izan ere, establezimenduan eta online paper-bonu misto bat sortzea ezin da kudeatu eta, gainera, horrek kudeaketa-gastuak nabarmen garestitzea dakar. Halaber, sustapen-kanpaina bat izanik, ikusarazi eta fidelizatu egiten da, eta horrek bezeroak pozik sortzeko aukera ematen du.

Hala eta guztiz ere, talde teknikoak konpromisoa hartzen du udalerriko sektore edo eremu jakin batzuetan bonu fisikoen ehuneko txiki bat sortzeko proposamena aztertzeko, premia horri bide emateko.

Bestalde, egungo aurrerapen teknologikoak kontrolatzen ez dituzten saltoki tradizionalekin bat ez datorrela esan du Ainhoak, eta horrek oztopoak dakartzkie. Helarazten zaion iritzi teknikoa da eredu zaharretara itzultzea erabateko atzerakada dela. Gaur egun, oro har, digitalizazioaren aldeko apustua egiten ari da, eta horren adibide garbia da 2022an **Batuz Sistema** sartu izana. Sistema horrek esan nahi du saltokietan fakturazio eta kudeaketa informatikoko programa bat dagoela, **nahitaezkoa**. Horregatik guztiagatik, garrantzitsua da sektoreak ahalegin hori egiten hastea honelako ekintza txikien bitartez.



# Getxo

Ekonomia - Sustapena  
Promoción económica

*bizi ezazu*

Taxien mahaiko ordezkari José Ignacio Lópezek Foroari adierazi dio bezeroa nahiz profesionala aurrerapen teknologikora egokitu behar dela, saihestezina delako. Bere esperientziatik, bere zerbitzuetan instalatutako aplikazio berri batekin, egiaztatuta dauka denok goazela erosotasunaren bila, zalantza edo ezjakintasuna sortzen diguten guztiak saihesten ditugu, erabiltzen dakigun arte, eta adibide erraz gisa, telefono mugikorra aldatzea aipatu du.

Horrekin guztiarekin, eta bi erduei oniritzia eman ondoren, barne-lanari ekingo zaio kanpaina ahalik eta lasterren hasteko egin beharreko hurrengo urratsei begira, eta horren berri emango da. Era berean, kanpainaren kronograma bat egiteko ahalegina egingo da, eta orain arte bezala bidaliko da. Halaber, ordezkarietara eskatzen zaie beren bazkideen parte-hartzean eragiteko, aurreko edizioan baino atxikimendu-kopuru handiagoa lortzeko, eskasa iruditu baitzitzaien.

Beharrezkotzat jotzen da eguneko muga bat ezartzea pertsona eta egun bakoitzeko erosi beharreko bonu kopuruan (gehienez lau bonu).

Talde teknikoak konpromisoa hartzen du jarduera horren kronograma foroko ordezkarietara emateko.

### **3.- Tokiko sentsibilizazio- eta kontsumo-kanpaina.**

Talde teknikoak jakinarazi duenez, iaz tokiko erosketako sentsibilizazio-kanpainarako aurrekontu parte-hartzaileen lerro bat onartu zen. Hasiera batean, 60.000 euroko zenbatespena egin zen, oraindik zehaztu gabeko kanpaina baitzen. Hala ere, azken informazioaren arabera, kopuru hori 80.000 €-ra igo da, osorik. Kanpainarako 3 proposamen eskatu dira herriko 3 publizitate eta komunikazio enpresak gara ditzaten. Kanpaina osorako gehieneko aurrekontua **15.000 €+ BEZA** izango da, eta honako hauek jaso beharko ditu:

- Estrategia baten diseinua: proposatutako irudia eta sormena hartuko dira kontuan. Saltokiek parte hartzea ere bada helburua.
- Erabilitako bitartekoak: udalerriko sektore ekonomikoan eragin handia duten bitartekoak erabiltzea da asmoa, arinak, dinamikoak, ikus-entzunezkoak baino ez direnak, kontuan hartuta mugikortasunak eragina duen bitartean Bilbo Handia eta Uribe Kosta inguruari helduko zaiola nagusiki.
- Adierazleak: kanpainaren emaitzak neurtzeko eta jarraipena egiteko adierazleak ere beharko dira.

Aurrekontuaren gainerakoa publizitate-ekintzetan inbertituko da nagusiki.



**Getxo**  
*bizi ezazu*

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

Jakinarazi da ostegunean, otsailaren 25ean, proposamen horiek jasotzea aurreikusita dagoela. Une horretatik aurrera, ikuspegi teknikitik egokiena den esleipena egin ahal izango da, eta esleitutako enpresarekin lanean hasiko da.

Aurrerapenak kontsulta-foroarekin partekatuko dira, edukietan parte har dezaten eta ekarpenak egin ditzaten. Asmoa da apirilean lanean hastea.

#### **4.- Galderak, iradokizunak eta bestelakoak.**

##### Ekonomia suspertzeko jardueren ezohiko plana

Udal Gobernu Taldearen ordezkariak azken Kontraste Mahai Politikoan esandakoaren ildotik, Gobernu Taldeak proposatutako neurri eta jarduketak aurreratu zaizkie parte-hartzaileei, ekonomia-ehunari zuzenean eragiten baitiote. Getxo Ekinez! Plana zirriborro formatuan dago oraindik, eta udal ordezkariak duten talde politikoekin kontrastatzen ari da; helburua da martxoaren amaieran aurkeztea.

Ezohiko jardueren artean, Enpresen Aholku Foroaren eskaerei erantzuten dietenak nabarmentzen dira.

##### Publizitatea taxietan

Saltokiek berriz ere interesa agertu dute taxiak publizitate-euskarri gisa sinergia gisa erabiltzeko, eta hori finantzazio-bide gehigarri bat izango litzateke taxilarien elkartearantzat.

Bertaratutakoei gogorarazi zaie Barne Araubideko Udal Sailari galdetu zitzaiola ea taxiek publizitaterik izan zezaketen. Erantzuna izan zen, hasiera batean, ez zuela indarreko araudirik urratzen, eta horiek eskaera formal bat aurkeztu behar zutela proiektu simple batekin batera, Udalak aztertu eta erantzun zezan.

Horretarako, Udalaren aholkularitza-zerbitzua eskaini zitzaien proiektu txikia garatzeko, aurreko mahaietan beren negozioak taxietan euskarrien bidez iragartzeko interesa izan zutelako.

Beraz, Getxo Bonuren eta tokiko negozioen sustapenaren gisako ekintzak iragartzeko, jakinarazi da nahikoa litzatekeela taxien elkarrekin, barne-batzordean adostu ondoren, animatzea aholkularitza-zerbitzua eskatzera eta, haren laguntzaz, proiektua garatzera, udal-eremuan onar dadin; horrela, arloa sustatzeko eta hedatzeko hurrengo kanpainetan erabili beharreko bitartekoetako bat izango litzateke.





# Getxo

Ekonomia - Sustapena  
Promoción económica

*bizi ezazu*

Azaldutako interesaren ondoren, Jose Ignacio López taxilarien elkarteko presidentek aholkularitza-zerbitzua eskatu du; teknikariek bideratuko dute.

## Cross-selling

Amaiak, Algortako Dendak elkarteko ordezkariak proposatu du, taldeak erakartzeko kanpainari dagokionez (foroak lehenetsitako 6. ekintza), merkataritza-eta ostalaritza-elkarteak erabiltzea udalerriko zerbitzuak eta produktuak ezagutarazteko.

Ildo horretan, arlo teknikitik aurreko urteetan antolatu diren fam-tripak aipatu dira; horietara, turismo-zerbitzuen erabilera-preskriptore nagusiak gonbidatu ohi dira.

Bizi dugun errealitatea eta mugikortasun-murrizketak kontuan hartuta, oso interesgarritzat jotzen da proposamena, bai eta saltokiak eta ostalaritza turismo-eta aisialdi-zerbitzuen erabilera-preskriptore bihurtzeko aukera ere.

Proposamen bat landuko da.

## Eskaintza hedatzen laguntzea

Desirée Yestek esan du udal-zerbitzuen eta sustapen-kanpainen sustapen-bideoak izateko aukera dagoela, telebistetan zabaltzeko; proposamen hori beste parte-hartzaile batzuei egokitzen zaiela dirudi.

Eskaintza eskertzen da; eskuragarri dauden bideo guztien bilduma egingo da, eta establezimenduei gonbita egingo zaie eskura dituzten hedabideetan zabaltzen lagun dezaten.

## Bonu orokorra/Ostalaritza

Jorge Alonsok, ostalaritza-establezimendu bakoitzeko bonu kopuru mugatuagatik kezkatuta, 2 lizentzia dituzten enpresek izango duten tratamenduaz galdetu du (bat ostalaritzakoa eta bestea gainerako zerbitzuetakoa).

Teknikoki aztertuko da Getxo Bonuak lizentzia edo establezimendu motaren arabera emango diren, eta erantzuna emango da.



# Getxo

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

*bizi ezazu*

## ENPRESEN KONTSULTA FOROAREN ERABAKIAK (2021-02-23):

AKORDIOAK/EKINTZAK	ARDURADUNA	DATA
1.- Getxo Bono: udalerriko sektore edo eremu jakin batzuetan bonu fisikoen ehuneko txiki bat sortzeko proposamena aztertzea, behar hori aintzat hartzeko.	Mirene	Maiatzaren lehen hamabostaldia
2.- Getxo Bono: lizentzia bat baino gehiago (elikadura eta ostalaritza) dituzten establezimenduen atxikipenak teknikoki baloratzea.	Mirene	Maiatzaren lehen hamabostaldia
3.- Taxien publizitate-proiekturako aholkularitzara bideratzea.	Sonia	Bileratik aurrera
3.- Fam-tripak tokiko establezimenduentzat antolatzeko aukera aztertzea (horien preskriptoreak izan daitezen)	Sonia	Ekaina
4.- Planak sustatzeko pantailak eta bideoak dituzten establezimenduen eskura jartzeko aukera aztertzea	Sonia	Maiatza